

## **EUSKADI.-Terrorrezko zinemari buruzko ziklo bat egingo dute Santurtziko Las Viñas liburutegian abuztuaren 31 arte**

BILBO, 24 (EUROPA PRESS) Terrorrezko zinemari buruzko ziklo bat ari dira ematen Santurtziko Las Viñas liburutegian "Dardara" izenburuarekin eta abuztuaren 31 arte luzatuko da. Zikloa uztailaren 5ean hasi zen eta asteazkenero pelikula ezberdin bat eskaintzen du. Horrela, abuztuan zehar ikusgai izango diren pelikulei dagokienez, abuztuaren 2an "Atraccion diabolica" ikusi ahal izango da; 9an, "El sotano del miedo"; 16an, "La nueva pesadilla", 23an "Secuestradores de cuerpos"; eta 30ean, "El exorcista". Santurtziko Udaleko iturriek gaur jakinarazi dutenez, emanaldiak eguerdiko 12,30etan hasiko dira. Halaber, sarrera doakoa izango da, baina plazak mugatuak direnez, ordurako iristea gomendatu dute.